



2.
EUSKARALDIA.

æk

HELBURU NAGUSIAK:

- Euskaraldia zer den ezagutzera ematea.
- Euskararekiko jarreran eta motibazioan positiboki eragitea.

HELBURU DIDAKTIKOAK:

- NON/NOREKIN/ZERTARAKO galderei erraz erantzutea.
- Hainbat egiturarekin esaldi sinpleak egitea: baina/eta...
- Gelan "Nola esaten da euskaraz...?" edota "Zer esan nahi du...?" moduko esaldiak erabiltzen ohitzea.
- Kanta bat ezagutzea eta lexikoa aberastea.
- Iritziak emateko, egitura ohikoenak erabiltzen hastea.

Atazaurrea: Zer dakiten galdetu eta ataza aurkeztu

- "Euskaraldia" hitza entzun ote duten galdetuko dugu, ea ezer dakiten...

Oharra: informazio gehiago eskuratzeko, jo hona:
<https://euskaraldia.eus/>

1. JARDUERA: "¿Cuántas de éstas personas hablan euskara?"

- [Bideo-pasartea](#) ahotsik gabe ikusiko dute, eta 1. ikustaldian pertsonak eta dagozkien deskribapenak lotuko dituzte.
- 2. ikustaldian, erreparatu diezaiotela, ea, beren ustez, euskaldunak diren ala ez, eta X baten bidez adierazi taulan.
- Errepara diezaietela emandako esaldiei (adib.: *Adinarengatik, argi daukat X euskalduna dela*).
- Emandako erduei jarraikiz, beren iritzia azaltzeko 3 esaldi sinple idatziko dituzte.
- Ondoren, bideo-pasartea audio eta guzti ikusi eta erreparatuko diote zein asmatu dituzten eta zein ez. Eredua ikusita, esaldiak egingo dituzte: ..., *baina/eta...* beren inguruko pertsonak aipatuz.
- Galdetuko diegu zertan oinarritu diren pertsona horiek euskalduntzat edo erdalduntzat hartzeko.
- Ondorio gisa, aipatuko dugu askotan aurreiritziak izaten ditugula jendea euskalduntzat edo erdalduntzat hartzeko (adin, itxura, aurpegi, janzkera eta abarren arabera)



2. JARDUERA: Ohitura onak: *Ebaki deskafeinatua, Poliki-poliki eta Nik ulertzen dut* bideo-pasarteak ikusi eta jarrerak baloratu

- Bideo-pasarteak ikusi, eta galdetuko diegu ea antzekorik gertatu zaien inoiz: NON/NOREKIN. *Ebaki deskafeinatua, Poliki-poliki okindegian, Nik ulertzen dut.*
- Deklinabideari erreparatuko diote, singularra eta plurala bereizteko.
- Elkarrizketa errazak direla azalduko diegu, eta galdetuko diegu ikasturte-bukaeran NON/NOREKIN/ZERTARAKO egin nahi luketen euskaraz. Arbelean, 3 zutabe horietan aukera batzuk aterako ditugu denon artean.
- Txandaka, ahoz azalduko dute zer egingo duten; adib.: *Nik okindegian dendariekin...*
- Irakasleak azpimarratuko dizkie horko estrategia batzuk: poliki hitz egiteko eskatzeko, ikasten ari direla esateko, dena ulertzen ez dutela adierazteko, laguntza eskatzeko solaskideari... Labur baloratuko dituzte.

Esan nahi dutena esaten ez badakite, "NOLA ESATEN DA EUSKARAZ...?" galdetuko dute.

3. JARDUERA: *Euskaraldia: qué, dónde, quién...* Euskaraldia ezagutu.

- *Euskaraldia: qué, dónde, quién...* azpituludun bideo-pasartea ikusi eta falta diren datuak jasoko dituzte, esaldietan hutsuneak betetzeko.

Kontuan hartu behar da ikusiko duten bideoa lehen ediziokoa dela; beraz, lehendabiziko esaldia 1. edizioko datari dagokio; gainontzeko adierazpenek, aldiz, bietarako balio dute. Behin hori eginda, ikasleei eskatuko diegu adierazteko aurtengoa noiztik noiz arte egingo den. Horretarako, bakarka, erantzuna aurkitzen saiatuko dira, jakin ezean; izan ere, hainbat aukera daude: Euskaraldiaren web-orria, euskaltegiko euskarriak, herriko edo auzoko informazio-kartelak, Internet... Hori egiteko, bost bat minutu izango dituzte.

Talde handian, ikasle bakoitzak adieraziko du non aurkitu duen erantzuna: *2020ko Euskaraldia, azaroaren 20tik abenduaren 4ra.*

- *Zer da Euskaraldia?* testu laburra irakurriko dute eta E/G ariketa egingo dute, datu errazak jasotzeko.

Oharra: informazio gehiago eskuratzeko, jo hona: <https://euskaraldia.eus/>

Zerbait ulertzen ez badute, "ZER ESAN NAHI DU...?" galdetuko dute.



4. JARDUERA: Kanta entzun, hutsuneak bete eta egileak ezagutu

- [Euskaraldiko kanta](#) eta egileak aurkeztu, ezagutzen ote dituzten galdetu, eta kanta entzungo dugu (kantaren hitzak eta egileak: **6.-7. or.**).
- Kantaren izenburuaz galdetuko diegu, ea esanahia zein ote den; iritziak labur eman ondoren, esanahia argituko diegu: 7 egunez, 24 orduz. Hau da, egunero.
- Hitzen bat ulertzen ez badute, idazteko esango diegu.
- Talde handian gaudela, arbelean idatziko dugu zein hitz ez duten ulertu, eta zalantzak argituko ditugu.
- Hutsuneak beteko dituzte.
- Kanta gustatu zaien galdetuko dugu.
- Esaldi horien esanahiari dagozkion zalantzak argitu, eta kanta berriro entzungo dugu. Oraingoan, letra lodiz dauden esaldi horiek kantatzera animatuko ditugu ikasleak.

Oharra: helburua ez da kantaren hitz guztiak buruz ikastea, edota kanta osoa itzultzen aritzea. Errepika eta behin eta berriro errepikatzen diren bizpahiru esaldi ikasita, nahikoa.

- Kantaren egileen argazkiak ikusi eta aurkezpenekin lotu beharko dituzte (**7. or.**).
- Euskal musika gustuko badute, edota kantari horien kantaren bat ezagutu nahi badute, www.badok.eus gunean sartzera gonbidatuko ditugu.

ATAZAOSTEA: Herriko ekimenen berri eman

- Amaitzeko, herriko ekimenen berri emango dugu, gure hitzetan. Horretarako, herrian (edo eskualdean) egin diren aurkezpenen irudiak, albisteak eta bideoak erabiliko ditugu; esaterako, aurkezpeneko irudiak lagun:

● ● "Hau herriko -herriaren izena- aurkezpeneko argazkia da.
Duela x egun/aste/hil egin zen aurkezpena. Inor ezagutzen al duzue?"

Bilatzailea herriz herri: <https://euskaraldia.eus/bilatzailea-herrika/>

ESKOLAZ KANPO, EDO ESKOLAN, gehiago egin daiteke, esaterako:

- Eskolaz kanpo, beste bideo edo testigantza bat ikustera gonbida ditzakegu, gero eskolan komentatzeko: ([Euskaraldiaren gunean](#) edo [Youtube kanalean](#) batzuk dituzu).



1. Jarduera:

Ikusi ahotsik gabe *¿Cuántas de éstas personas hablan euskera?* bideo-pasarte eta esan, zure ustez, zeinek hitz egiten duen euskaraz eta zeinek ez.

a. Pertsonak eta deskribapenak lotu:

1. Lander	a	Neska gaztea da, 20-30 urte bitartekoa. Beltzarana da eta ile kizkurra du. Neska bizia eta langilea dela ematen du. Dendaria da.
2. Marianne	b	Neska gaztea da, ikaslea. Ile kizkurra du eta tindatua dauka. Belarritako biribilak dauzka. Oso aktiboa dela dirudi.
3. Luciana	c	Mutil gaztea da, 20 bat urte dauzka. Jantzera informala du eta belarritakoak dauzka. Ikaslea dela dirudi.
4. Manuel	d	Gizon heldua da, 50 bat urte dauzka. Betaurrekoduna da eta alkandora koadroduna dauka. Pertsona irekia dela ematen du, jatorra. Tabernaria da.
5. Miguel	e	Gizon heldua da, 60-70 urte bitartekoa. Jubilatua da. Bizarduna da eta gizon lasaia ematen du, zoriontsua.
6. Ane	f	Neska gaztea da, 30 bat urtekoa. Ilehoria da eta ilea bilduta darama. Oso jantzera txukuna dauka eta goi-mailako ikasketak dituela dirudi. Bai, enpresaria da.

b. Euskalduna¹ ote da? **X** baten bidez adierazi zure iritzia.

	Euskalduna da. Argi dago.	Ez dakit ziur, baina euskalduna dirudi.	Nik uste dut ez dela euskalduna.
Lander	●	●	●
Marianne	●	●	●
Luciana	●	●	●
Manuel	●	●	●
Miguel	●	●	●
Ane	●	●	●

Erreparatu esaldi hauei, batez ere ezezkoen ordenari:

- ADINAREngatik, argi daukat X euskalduna dela / ez dela euskalduna.
- Ez dakit ziur, baina ITXURAREngatik ez dirudi euskalduna.
- JANZKERA horrekin, argi dago: euskalduna da.
- AURPEGIAREngatik, nik uste dut ez dela euskalduna.
- AZALAREN KOLOREA: nahiko beltzarana da; ez dakit ziur, baina ez dirudi euskalduna.

1. Euskalduna=euskaraz dakiena.



Idatzi hipotesi bana, espresio hauek erabiliz:

- _____-agatik, argi daukat _____ -la.
- _____-agatik, nik uste dut _____ -la.
- _____-agatik, ez dakit _____ -n.
- _____-agatik, ematen du _____ -la.
- _____-agatik, _____ -la dirudi.

C. Orain, bideoa soinuaz ikusi eta erreparatu euskaldunak diren ala ez; ez dituzu denak asmatu, ezta? Gure aurreiritziekin (*prejuizioekin*), askotan ez dugu asmatzen.

Batzuetan "logikoak" iruditzen zaizkigu; adib.: Ane gaztea da **eta** ondo hitz egiten du euskaraz.

Beste batzuetan, sorpresak izaten ditugu; adib.: Manuel nahiko heldua da, **baina** euskara ulertzen du.

Ikasle bakoitzak bere inguruko 2 pertsona ahoz aipatuko ditu: bata "logikoa" (... *eta...* erabiliz), eta bestea "sorpresa" (... *baina...*) erabiliz.



2. Jarduera:

Ikusi *Ebaki deskafeinatua*, *Poliki-poliki* eta *Nik ulertzen dut* bideo-pasarteak eta jarrerak baloratu.

Zuei horrelako zerbait gertatu zaizue inoiz? NON? NOREKIN? Erreparatu:

	NON	NOREKIN
Singularra	OkindegIAN, fruta-dendAN, bulegoAN...	TabernariAREKIN, bikotekideAREKIN...
Plurala	TabernETAN, dendETAN...	LagunEKIN, lehengusuEKIN...



Ikaslearentzako orriak



Horrelako elkarrizketa errazak ikasturte-bukaeran egin ahal izango dituzu; lotu gezienez bidez, logikaz, koherenteak diren datuak:



● Ikaslearentzako orriak



dek

NON	NOREKIN	ZERTARAKO
1. TabernETAN	A. LagunEKIN umeekin bikotekideAREKIN	a. Fruta erosTEKO
2. OkindegiAN		b. Edatekoa edo jatekoa eskaTZEKO
3. Fruta-dendan	B. Tabernariarekin lagunekin	c. Gutunak jasotzeko /bidaltzeko
4. Posta-bulegoan	C. Dendariarekin	
5. Etxean	D. Bulegariarekin bertako langileekin	d. Ogia erosteko

Txandaka, ahoz azalduko duzue zer egingo duzuen; adib.:
Nik tabernetan tabernariarekin HITZ EGINGO DUT EUSKARAZ, poteak eta pintxoak eskatzeko.



3. Jarduera:

a. Ikusi *Euskaraldia*: *qué, dónde, quién...* bideo-pasartea eta jaso falta diren datuak:

1. Lehenengo Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen.
 2. Euskaraldia (non?) _____ egingo da.
 3. Leku askotan egin ahal da (daiteke) euskaraz: etxean, _____, _____, _____, aisialdian...
 4. Bi gauza behar dira parte hartzeko: (adina?) _____ baino gehiago izatea eta _____ ulertzea.
 5. Ariketaren protagonistak: _____ eta _____ izango dira.
 6. Ahobizi: euskara ulertzen duten guztiei (zer egin?) _____ diet lehen hitza.
 7. Belarriprest: ikurrarekin (txaparekin) niri _____ eskatuko diet ingurukoei.
- 2020ko Euskaraldia azaroaren _____ (e)tik abenduaren _____ (e)ra egingo da.

Galdetzeko, gogoratu: **Nola esaten da euskaraz...?**
Zer esan nahi du...?



b. Zer da Euskaraldia?

- Euskaraldia hizkuntza-ohiturak¹ aldatzeko ariketa sozial masiboa da.
- Ariketa edo praktika kolektibo bat da. Ariketa horretan, maila pertsonalean edota kolektiboan parte hartu ahal izango da.
- Aurten 2. edizioa izango da.
- Aurrekoan (Euskaraldia: 11 egun euskaraz) pertsonengan jarri zen fokua: batzuk Ahobizi moduan (euskaraz hitz egiten dute) eta beste batzuk Belarriprest moduan (euskara ulertzen dute).
- Aurten entitateek (mota guztietako enpresak, kirol-kultura-elkarte, saltoki, erakunde publikoak...) ere hartuko dute parte. Helburua da entitate horiek beren hizkuntza-ohiturak aldatzen hastea, baita beren kideek, langileek, bezeroek... ere. Hau da, euskararen erabilera handitzea.
- Parte hartzeko, gutxienez, ulertu behar da.

Euskaraldia ondoko helburu³ekin sortu da:

- Jendeak euskaraz gehiago hitz egitea.
- Pertsonak beren hizkuntza-ohiturei buruz pentsatzea, gero hobetzeko.
- Inertziak apurtzea.



Esan hurrengo esaldiak egia ala gezurra diren:

- e g** 1. Euskaraldia ariketa pertsonala da.
- e g** 2. Aurten 2. edizioa izango da.
- e g** 3. Bi modutan hartuko dugu parte: Belarriprest eta Ahobizi.
- e g** 4. Parte hartzeko, euskaraz hitz egin behar da.



4. Jarduera:

Kanta entzun, **hutsuneak bete** eta egileak ezagutu

24/7

Gehiago... _____ ... Gehiagotan.

Prest al zara? esan, esan... esan esan

Prest al zara? esan... bai!

Zaindu maite _____ hori... zaindu.. zain gu...
maite duzuna?

Armairutik atera armairua bera! Atera, ba! Atera!

Bagera – ezer ez da berdin (e)ta segi aurrera

Bagare – ez da _____ baina halere...

Bagira – ez geratu begira

Bagire – ez esan ez dela posible

Zenbat gara? Ni, bat

24 / 7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko ta ez aski

Prest _____ esan, esan

Prest bazara, esan

Prest bazara esan, esan

“Jalgi hadi plazara, jalgi hadi

Han bat eta han bi.

Hainbat... eta handi!

Jalgi hadi plazera, adi adi

Batera... bat bera...”

Bagera – mugetan preso _____ ez dadila gera

Bagare – aspaldi belarriak ahoen zain daude

Bagira – ahoak belarrien bila dira

Bagire – gorputz _____ ez da bizitzeko libre

Zenbat gara? Ni, bat

24 / 7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko (e)ta ez _____



Ikaslearentzako orriak



dek



Egileak: BROKEN BROTHERS BRASS BAND.

Boza: Lorena Aisa, Claudia Rodriguez & Idoia Tapia (Skabidean).

Hitzak: Sustrai Colina. **Doinua:** Ion Celestino.



* Kantaren egileak

Ezagutzen dituzu? Lotuko irudiak eta aurkezpenak?



Ikaslearentzako orriak



A



B



C



SKABIDEAN

2012. urtean sortu zen, Iruñean; ska, reggae eta rocksteady taldea da. 200 kontzertu baino gehiago eman ditu Euskal Herriko geografia osoan zehar. Gaur egun hiru emakumezko abeslari dira taldean, eta 11 kide ditu guztira.

DISKOGRAFIA:

Maketa (2015)
Skabidean (2017)
Bideak darrai (2018)
Maravillas Sozial Club (2018)
Izaera (2020)



SUSTRAI COLINA AKORDARREMENTERIA

(Urruña, 1982)

Bertsolaria, bertso-irakaslea eta kazetaria da. Zuzenbideko lizentzia du. Gainera, [Berria](#) egunkarian idazten du, eta elkarrizketak egiten ditu [Argia](#) astekarirako.

BERTSOLARITZAN IBILBIDEA:

txapelketa askotan parte hartu izan du; urte askoan Euskal Herriko Txapelketa Nagusian finalista izan da. 2017an, hirugarren gelditu zen.



ION CELESTINO

Broken Brothers Brass Band taldeko tronpeta-jolea.

Broken Brothers Brass Band 2006an Iruñean sortutako jazz musika-taldea da. 2012an atera zuten aurreneko diskoa. Euskal Herriko eta inguruko lurretako jaialdietan jo izan dute: Donostiako, Getxoko eta Iruñeko jazzaldietan, Zornotzako Haizetara jaialdian...

dek

Haien kantak
entzun nahi dituzu?
Bada, jo
www.badok.eus
gunera!

Iturria: <https://eu.wikipedia.org>



ERANTZUN-ORRIA

1. jarduera: Pertsonak eta deskribapenak lotu:

1-C; 2-F; 3-A; 4-E; 5-D; 6-B.

3. jarduera:

1. Lehenengo Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen.
 2. Euskaraldia (non?) **Euskal Herri osoan** egingo da.
 3. Leku askotan egin ahal da (daiteke) euskaraz: **etxean, lantokian, familian, kalean, lagunartean**, aisialdian...
 4. Bi gauza behar dira parte hartzeko: (adina?) **16 urte** baino gehiago izatea eta **euskara** ulertzea.
 5. Ariketaren protagonistak: **ahobizi** eta **belarriprest** izango dira.
 6. Ahobizi: euskara ulertzen duten guztiei (zer egin?) **euskaraz egingo diet** lehen hitza.
 7. Belarriprest: ikurrarekin (txaparekin) niri **euskaraz egiteko** eskatuko diet ingurukoei.
- 2020ko Euskaraldia azaroaren **20**tik abenduaren **4**ra egingo da.

Zer da Euskaraldia? 1-G (kolektiboa); 2-E; 3-E; 4-G (ulertu).



Erantzun-orria



dek

4. jarduera:

Euskaraldia 2020 kanta

24/7

Gehiago... **Gehiagorekin**... Gehiagotan.

Prest al zara? Esan, esan... esan esan

Prest al zara? Esan... bai!

Zaindu maite **duzun** hori... zaindu... zain gu... maite duzuna?

Armairutik atera armairua bera! Atera ba! Atera!

Bagera – ezer ez da berdin (e)ta segi aurrera

Bagare – ez da **erraza**, baina halere...

Bagira – ez geratu begira

Bagire – ez esan ez dela posible

Zenbat gara? Ni, bat

24/7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko (e)ta ez aski

Prest **bazara** esan, esan

Prest bazara esan

Prest bazara esan, esan

“Jalgi hadi plazara, jalgi hadi

Han bat eta han bi.

Hainbat... eta handi!

Jalgi hadi plazera, adi, adi

Batera... bat bera...”

Bagera – mugetan **preso** inor ez dadila gera

Bagare – aspaldi belarriak ahoen zain daude

Bagira – ahoak belarrien bila dira

Bagire – gorputz **txarrik** ez da bizitzeko libre

Zenbat gara? Ni, bat

24/7

Zenbat gara? Gu, bat

Asko ta ez **aski**

Kantaren egileak:

A- Sustrai Colina; **B-** Ion Celestino; **C-** Skabidean.



Zuzenketak-orkiak



dek